5/2014 FORU DEKRETUA, martxoaren 4koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapeko bigarren mailako arretako gizarteratzeko baliabideak eskuratzeko prozedura arautzekoa

(2014ko martxoaren 18ko 52 zk.ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Bigarren mailako arretaren eremuan gizarteratzeko zerbitzu sozialen garapenak hazkunde nabarmena izan du azken urteetan Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Hazkunde hori zor zaio Gipuzkoako gizarteak, bertako erakundeen eta gizarte zibilaren bidez, gero eta agerikoagoa den problematika baten eskariei emandako erantzun sendoari.

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, foru aldundien ardurapeko gaien artean sartzen ditu bigarren mailako arretako gizarteratzeko baliabideak, eta esparru hori da, hain zuzen ere, foru dekretu honek berariaz jorratzen duena. Lege horretako 22. artikuluan ezartzen da “Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa”.

Zehazki, aipatu artikuluan zerrendatzen dira foru aldundien eskumenekoak diren bigarren mailako arretako gizarteratzeko baliabideak:

- 2.1. Bazterketa baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
- 2.2.3 Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
- 2.3.2 Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.
- 2.4.5 Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

- 2.7.3.1 Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.

Baliabide horiek arreta sare integratu, dibertsifikatu eta koordinatua eratzeko bokazioarekin konfiguratu dira, sortzen diren premiei erantzun instituzionala emateko.

Foru dekretu honen helburu nagusiak dira:

1) Hobeto definitzea bigarren mailako arretako gizarteratzeko baliabideak eskuratzeko prozedura.

2) Zehatzago definitzea baliabide horiek eskuratzeko proposamena eta orientazio teknikoa erabakitzeko behar diren balorazio teknikoa eta diagnostiko espezializatua.

3) Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari egokitzea.

4) Prozedura bereziak arautzea, ezaugarri berezietako zerbitzuetara deribatzeko.

Horiek horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehena. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da arautzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko gizarteratzeko baliabideak eskuratzeko prozedura. Horiek osatzen dute erantzukizun publikoko bigarren mailako arretako baliabide multzoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak definitutakoaren arabera.

Foru dekretu hau aplikatuko zaien gizarteratzeko baliabideak 1. eta 2. eranskinetan zerrendatzen dira.

Bigarrena. Onuradunak.

1. Foru dekretu honen objektu diren gizarte baliabideak, gizartean baztertuta edo marjinatuta dauden pertsona eta familientzat dira, gizarteratze prozesuak egiteko gogoa eta gaitasuna erakusten badute.

2. Ez dute aukerarik izango foru dekretu honen objektu diren gizarte baliabideak eskuratzeko:

a) Osasun laguntza espezializatua behar duten pertsonek: baliabide hauek baino laguntza maila handiagoa eskatzen duten tratamendu edo teknika medikoak edo erizaintzakoak behar dituztelako.

b) Gaixotasun infekto-kutsakorrak dituztenek: baliabidea dagoen zentroak prebentzio unibertsalak hartu arren, ezin bada garantizatu gaixotasuna ez zaiela kutsatuko gainerako erabiltzaileei.

c) Portaera nahasmendu larria dutenek: beren jokabidearekin zentroaren funtzionamendu normala eragotz badezakete eta/edo zentroko elkarbizitza oztopa badezakete.

Hirugarrena. Baliabidearen egokitasuna.

Baliabidea egokia den eta eskatzailearen premiei erantzun diezaiekeen erabakitzeko, elementu hauek hartuko dira kontuan:

a) Erabiltzailearen gizarte bazterketa eta tipologia.

b) Arazoari buruzko kontzientziaren maila eta aldatzeko motibazioa.

c) Profesionalek gidatutako gizarteratze prozesu bat jarraitzeko gaitasuna.

d) Prozesuaren onarpena eta gizarteratze prozesu bat egiteko gogoa.

e) Egoera legala eta administratiboa.

f) Bizitokiari buruzko egoera.

g) Laneko egoera edo okupazioa.

h) Prestakuntza.

i) Autonomia fisikoa eta osasun egoera.

j) Autonomia psikikoa.

k) Trebetasun eta gaitasun sozialak.

l) Familia harremana eta elkarbizitzako unitatea.

m) Sostengu sare soziala.

Laugarrena. Baliabideak eskuratzeko eskakizun orokorrak.

Baliabideak eskuratu ahal izango dituzte eskaera egiten duten datan eskakizun orokor hauek betetzen dituztenek:

a) Adina: 18 eta 64 urte bitartekoa izatea.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egotea eskaera data baino 6 hilabete lehenagotik, eta bertan izatea legezko, eta benetako, bizilekua. Salbuespen gisa, eskaera data baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik Gipuzkoako gizartean errotuta daudela frogatzen dutenak legezko bizilekuaren eskakizuna betetzetik salbuetsita geratu ahal izango dira. Pertsona bat gizartean errotuta dagoela ulertuko da Gipuzkoako gizartean sartzeko borondatea erakusten duten jarduerak egiten parte hartu badu jarraitasunez: eskolatzea, enplegua, prestakuntza jarduerak, ohiko harremana gizarte zerbitzuekin edo gizarte entitateekin, etab.

c) Baliabidearen premia justifikatzeko adinako gizarte bazterketa jasatea, 2013ko uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak onartutako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnan zehaztutakoaren arabera.

d) Profesionalek gidatutako esku hartze sozialak eta gizarte eta hezkuntza arlokoak onartzeko gai izatea; eta gizarteratzeko prozesua egin ahal izateko baliabide pertsonalak izatea.

e) Osasun egoerari dagokionez, osasun erakundeetan asistentzia etengabe edo ziklikoaren beharrik ez izatea, eta baliabideetan osasun publikoko neurririk hartu behar ez izatea. Salbuespen gisa, baliabideak eskuratu ahal izango dituzte gaixotasun kroniko edo adikziozkoak

dituztenek, baldin eta eskaera egiten duten unean gainbegiratuta badaude eta arazoa gainditzeko prozesu positibo, iraunkor eta egiaztagarrian.

f) Autonomia pertsonalari dagokionez, hirugarren pertsona baten beharrik ez izatea eguneroko bizitzako eginkizunetarako, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzkoak, ezarritako terminoetan.

g) Gizarteratzeko prozesu bat egitea eragozten duen gaixotasunik ez izatea, Gizarte Politikako Departamentuak aplikatzen duen bigarren mailako arretako gizarteratzeko bizitokietarako orientazio baremoaren arabera neurtua.

h) Baliabideko elkarbizitza asalda dezakeen portaera nahasmendu larririk ez izatea, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren osagarria den bigarren mailako arretako gizarteratzeko bizitokietarako orientazio baremo foralaren arabera neurtua.

Bosgarrena. Prozeduraren hasiera.

1. Prozedura hasiko da interesatuak berak edo bere ordezkariak hura erroldatuta dagoen udaleko gizarte zerbitzuetan eskaera egin ondoren.

2. Salbuespen gisa, erroldatuta ez egon arren laugarren ataleko b) letran zehaztutakoari jarraikiz gizartean errotuta daudela frogatzen duten pertsonak direnean, gaitutako gizarte entitateen bidez egindako eskaerak onartuko dira.

Seigarrena. Dokumentazioa.

Eskaera aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta sinatuta, dokumentu hauekin batera:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuaren fotokopia.

b) Diru-sarreren deklarazioa, horrelakorik balu.

c) Errolda ziurtagiria edo errotuta dagoela frogatzeko agiriak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin badu bere kabuz lortu informazio hori.

d) Gizarte txostena: hirugarren ataleko edukiak zehaztuko dituena; eta deribazioaren motibazioa eta profesionalek egindako aldeko balorazioa eta orientazioa jasoko dituena. Gizarte txostenean berariaz baloratuko dira gizarteratzeko prozesua egiteko baliabide pertsonalak.

e) Behar izanez gero, txosten medikoa: eskatzaileak laugarren ataleko e) eta g) letretan ezarritako eskakizunak betetzen dituela jasoko duena; eta, kasua bada, medikatzeko jarraibideak zehaztuko dituena.

f) Horrelakorik balu, desgaitasunaren balorazioa eta/edo mendetasun egoeraren balorazioa.

g) Gizarte bazterketaren mailaren balorazioa, 2013ko uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak onartutako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnan zehaztutakoaren arabera.

h) Arreta pertsonalizatuko plana: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 19.1 artikuluan aipatua.

i) Kasu bakoitzari orientazio egokiagoa emateko baliagarria izan daitekeen beste edozein informazio.

Zazpigarrena. Balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa

1. Eskaerak, behar bezala beteta, eta eskatutako dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentura bidaliko dira.

2. Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak kasuaren balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa egingo du, alderdi hauek kontuan hartuta proposamena lantzeko:

a) Lehenagoko esku hartzeetan pertsona horrek emandako erantzuna.

b) Kronifikazioaren edo narriadura pertsonalaren gradua.

c) Esku hartzearen bidez lortu nahi diren helburu estrukturalak.

d) Baliabide egokiena zein den, hartzaile izango denaren profila, premiak eta helburuak kontuan izanda.

e) Esku hartzearen aurreikusitako iraupena.

3. Eskaerak bereziki konplexuak direnean Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzuaren iritziz, diagnostiko fasean gehitu ahal izango da bigarren mailako arretako gizarteratzeko bizitokietarako orientazio baremo forala, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren osagarria.

4. Eskatzailearen egoera pertsonalean aldaketaren bat gertatzen bada, egindako balorazioa aldatzea justifika dezakeena, balorazio hori berrikustea eskatu ahal izango zaio Gizarte Politikako Departamentuari. Dagoeneko egoitza ekipamendu batean edo eguneko arreta zentro batean badago, baliabidea kudeatzen duen entitateak eskatu ahal izango du balorazioa berrikustea.

Zortzigarrena. Ebazpena.

1. Egindako txostena ikusita, Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusiak ebatziko du eskatutako baliabidea ematen zaion ala ukatu egiten zaion.

2. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera Gizarte Politikako Departamentuan jasotzen den egunetik aurrera.

3. Eskatutako baliabidea emateko ebazpenean zehaztu beharko da baliabide mota eta baimendutako esku hartzearen iraupena. Ebazpen hori eskatzaileari edo haren ordezkariari jakinarazi beharko zaio, eta ezagutzera eman beharko zaie eskaera aurkeztu zen udaleko gizarte zerbitzuei edo gaitutako gizarte entitateari eta baliabidea kudeatzen duen entitateari.

4. Baliabidea ukatzen dute ebazpenak behar adina arrazoituak izango dira.

Bederatzigarrena. Bigarren mailako arretako gizarteratzeko sarearen izaera.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gizarteratzeko zerbitzu eta programen sarea osatzen duten gizarteratzeko zentroetan egon ahal izateko, gizarte eta hezkuntza arloko programa bat bete behar da, kasuaren balorazio profesionala behar da eta Banako Arreta Plana bete behar da. Zentro horiek ez dira izango bertan hartzen dituzten pertsonen ohiko bizilekua edo etxebizitza.

2. 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, araututako Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoei eta Gizarte Politikako Departamentuak ematen duen Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzari dagokienez, bazterketa eta marjinazioko egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak aldi baterako harrera zentrotzat hartzen dira.

Hamargarrena. Itxaron zerrendak.

1. Itxaron zerrendaren bidez lehentasunak ordenatzen ditu Gizarte Politikako Departamentuak gizarte premiei arreta emateko, erabilgarri dauden baliabideen arabera; eta baliabide bat eskuratzeko aldeko ebazpena lortu duten pertsonen sarrera ordena ezartzen du.

2. Hauek izango dira itxaron zerrenda kudeatzeko irizpideak:

a) Premiaren maila.

b) Esku hartze prozesuaren eboluzio positiboa.

c) Arriskua edo zaurgarritasuna.

d) Eskaera data.

e) Zentroaren hurbiltasuna bizilekuarekiko, edo prestakuntza edo okupazio zentroarekiko.

3. Eskatzaileak edo, kasua denean, eskaera formalizatu duen entitateak, eskaera itxaron zerrendan zein lekutan dagoen jakin ahal izango dute.

Hamaikagarrena. Plaza esleitzea eta onartzea.

1. Gizarte Politikako Departamentuak baliabidea eskaintzen duen entitateari bidaliko dio erabiltzaileari buruz behar duen informazio guztia.

2. Zerbitzu batean plaza bat hutsik geratzen denean, zerbitzu hori ematen duen entitateak jakinaraziko dio interesatuari noiz hartuko duten; hau da, zein izango den bere sarrera data zehatza, Gizarte Politikako Departamentuak egindako itxaron zerrendan ezarritako lehentasun ordenaren arabera. Halaber, entitateak Gizarte Politikako Departamentuari jakinaraziko dio behin betiko sarrera data.

Hamabigarrena. Esleitutako zentrora moldatzeko epealdia.

1. Baliabidean sartu aurretik, elkar ezagutzeko fase bat ezarri ahal izango da, 15 egunekoa gehienez ere, Gizarte Politikako Departamentuak zentroari komunikatzen dion egunetik kontatuta.

2. Erabiltzailea zentroan sartzen denean, baliabideko erreferentziako profesionalak azalduko dizkio baliabidean egingo duen egonaldiaren helburuak, aurreikusitako iraunaldia eta ebaluatzeko irizpideak; eta horien eta zentroko arauen kopia emango dio. Era berean, erabiltzailearen arauekiko adostasuna eta konpromisoa jasoko ditu idatziz.

3. Kasuaren erreferentziako profesionalaren lana eta jarduera Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 19. artikuluan aurreikusitako esku hartzeko oinarrizko prozedurari egokituko zaio.

4. Zentroan benetan sartzen den egunaren hurrengo hilabetea, zentrora moldatzeko fase gisa hartuko da; eta epe hori igaro eta ebaluatu ondoren, egonaldia behin betiko onartutzat emango da.

5. Ezagutzeko fasean eta moldatzeko fasean, baliabidea ematen duen entitateak txosten arrazoitu bat egin ahal izango du proposatutako pertsona zentroan behin betiko onartzeko zailtasunak alegatzeko.

6. Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuak txosten hori aztertuko du eta 15 eguneko epean gehienez ere proposamena bidaliko dio eskaera behin betiko ebazteko Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusiari.

7. Txostena onartzeak ez du esan nahi eskatzaileak baliabidea eskuratzeko eskubidea galtzen duenik, Gizarte Politikako Departamentuak beste orientazio bat proposatu ahal izango duelako kasu horretarako.

8. Gizarte Politikako Departamentuak ofizioz berrikusi ahal izango du hasierako ebazpena, zentroan sartzeko behin betiko onarpena ematea ez dela komeni adierazten duen informazioa jasotzen duenean.

9. Interesatuari plaza esleitu diotela jakitera ematen zaionetik 3 egun baliodun igarotakoan, esleitutako zentrora joan ez bada arrazoi justifikaturik gabe, plazari uko egiten diola ulertuko da; eta plaza libre geratuko da zerrendako hurrengoarentzat.

10. Zentroan sartzeak erabiltzailea behartzen du zentroko funtzionamendu arauak onartzera.

Hamahirugarrena. Banako Arreta Plana.

1. Zerbitzua hasten denetik hilabeteko epean gehienez ere, erabiltzaileak Banako Arreta Plan bat adostuko du baliabidea kudeatzen duen entitatearekin, esku hartzearen helburu estrukturalak lortzeko egin beharreko ekintzak definitzeko. Plan hori Gizarte Politikako Departamentuari bidaliko zaio; eta hark erabiltzaileari dagokion udaleko gizarte zerbitzuen esku jarriko du.

2. Banako Arreta Planak jaso beharko ditu erabiltzailearen gizarte premiak, planteatutako helburuak eta egin beharreko ekintza zehatzak. Era berean, zehaztuko du zein arlo landu behar den gizarte zerbitzuei, prestakuntzari, gai juridikoei, osasunari (orokor nahiz mentalari), lanari, aisiari eta denbora libreari edo beste edozeini dagokienez, gizarteratzeko prozesua hobeto egiteko.

3. Hiru hilean behin gutxienez, Banako Arreta Plana zenbateraino betetzen ari den ebaluatuko du zentroak; eta, urtean behin gutxienez, helburuak berrikusi eta eguneratuko ditu erabiltzailearen partaidetzarekin, esku hartzea iraupen horretara heltzen denean. Urteko berrikuspen horiek Gizarte Politikako Departamentura bidaliko ditu; eta hark erabiltzaileari dagokion udaleko gizarte zerbitzuen esku jarriko ditu.

4. Gizarte Politikako Departamentuko teknikariek eta dagokion udaleko gizarte zerbitzukoek iradokizunak egin ahal izango dituzte eta aldaketak proposatu Banako Arreta Planei dagokienez, eta erabiltzaileak horien berri izan beharko du.

Hamalaugarrena. Barne araudia.

Bigarren mailako arreta sareko baliabide guztiek barne araudi bat izango dute; eta araudi horretan jaso beharko dira zentroko elkarbizitzarako arauak, erabiltzaileen eskubideak eta obligazioak, erabiltzaileek parte hartzeko izango dituzten tresnak eta arau hausteen eta zehapenen erregimena. Araudi horren ale bat emango zaie erabiltzaile guztiei zentroan edo baliabidean sartzen diren unean. Gainera, araudiaren kopia eguneratua bidaliko da Gizarte Politikako Departamentura.

Hamabosgarrena. Baliabidea erabiltzeko epealdiaren amaiera.

1. Erabiltzailea gizarteratzea lortu denean eta baliabidean egoteko gehieneko epea igaro denean edo, bestela, zentrotik botatzen dutenean ezarritako zehapenen ondorioz, entitate kudeatzaileak Gizarte Politikako Departamentuari proposatuko dio erabiltzaile horri baja ematea.

2. Errekurtsoan baja emateko arrazoiak honakoak izango dira:

a) Programa amaitzea, Banako Arreta Planean finkatutako helburu guztiak beteta.

b) Erabiltzailearekin itundutako baja, Banako Arreta Planean finkatutako helburuak zati batean beteta.

c) Erabiltzaileak programa uztea.

d) Zentroz aldatzea, foru eskumeneko gizarteratzeko sarearen barruan.

e) Erabiltzailearen heriotza.

f) Arau hauste oso larriengatik zentrotik botatzea. Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 93.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zentrotik botatzeak 6 hilabeteko etendura ekarriko du zerbitzua eskuratzeko eskubidean. Epe hori igarotakoan, baliabidea eskuratzeko prozedura berri bati ekin ahal izango zaio.

g) Gero gertatutako arrazoiak, baja ematera behartzen dutenak.

3. Era berean, erabiltzailea erroldatuta dagoen udaleko gizarte zerbitzuek proposatu ahal izango dute, justifikatuz, baliabidean baja ematea, eskaera Gizarte Politikako Departamentuari helarazita. Eskaera hori 15 eguneko epean ebatziko da gehienez.

4. Baja emateko proposamena justifikatzen duen txostena jasotzen duenean, Gizarte Politikako Departamentuak behin betiko erabakia hartuko du, proposamena ebaluatu ondoren.

5. Zentrotik botatzen denean, baliabidea kudeatzen duen entitateak hori justifikatzen duen txostena bidali beharko dio Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuari, erabiltzailea bota eta 48 ordu igaro aurretik.

6. Gizarte Politikako Departamentuak ezetsi ahal izango du erabiltzailea botatzea justifikatzen duen txostena; eta berriro sartzea edo beste zentro batera eramatea erabaki ahal izango du.

7. Edozein kasutan, Gizarte Politikako Departamentuak ofizioz jardun ahal izango du erabiltzaile bati baliabidean baja ematea komeni den baloratzeko.

8. Zerbitzua eten ahal izango da aldi baterako, baja eman gabe eta plaza gordeta, ospitalean ingresatu behar denean eta antzeko kasuetan, egoera justifikatzeko txostena eginda.

Hamaseigarrena. Baliabidearen jarraipena eta luzapena.

1. Baliabidea ematen duen entitateak edo kasuko erreferentziako profesionalak irizten badute erabiltzaile baten egonaldia luzatzea komeni dela Gizarte Politikako Departamentuak ezarritako gehieneko egonaldia baino gehiago, eta artatutako pertsona ados badago, Gizarte Politikako Departamentura horretarako eskaera espresuki bidali beharko dute egonaldia amaitu aurretik, eskaera justifikatzeko gizarte txostenarekin batera.

2. Erabiltzaileak ere eskatu ahal izango du luzapena, eta kasu horretan Gizarte Politikako Departamentuak txostena eskatuko dio baliabidea ematen duen entitateari.

3. Bi kasuetan, txostenean jaso beharko dira egonaldian zehar izandako eboluzioa, gizarteratzeko izan litezkeen zailtasunak eta, kasua bada, egonaldiari jarraipena emateko justifikazioa.

4. Gizarte Politikako Departamentuak espresuki baimendu beharko du emandako baliabidearen luzapena. Jarraipena ukatzen bada, entitate kudeatzaileak utzi egin beharko dio baliabide hori emateari.

Hamazazpigarrena. Legez ezgaitzea.

Baliabide batean sartu ondoren, erabiltzaileari desgaitasun mentala sortzen edo areagotzen bazaio eta horren ondorioz ez bada gai bere bizitzarako oinarrizko erabakiak hartzeko, zentroko zuzendaritzak edo kasua daraman profesionalak familiari egoera horren berri emango dio, beste baliabide bat esleitzeko behar diren izapideak has ditzaten. Familiarik ez badago edo errekerimenduari erantzuten ez badio, Gizarte Politikako Departamentuari horren berri emango zaio, erabiltzailearen eskubideak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko eta, kasua bada, legezko tutoretza edo kuradoretza orientatzeko.

Hemezortzigarrena. Beste egoitza ekipamendu batera aldatzea.

1. Beste zentro edo ekipamendu batera aldatzea eskatzeko arrazoiak honakoak izan daitezke:

a) Familiakoak berrelkartzea zentroan.

b) Jatorrizko bizilekura edo prestakuntza zentrora hurbiltzea, gizarteratzeko prozesua errazteko.

c) Gizarte bazterketako egoera aldatu delako, komenigarria izatea erabiltzailearen premia berriei hobeto erantzungo dien baliabide batera aldatzea.

2. Zentroz aldatzeko eskaera erabiltzailea dagoen zentroko arduradunak edo erreferentziako udaleko gizarte zerbitzuek egingo dute. Bi kasuetan, erabiltzailearekin kontsultatuta egingo da.

3. Zentroz aldatzeko eskaerak Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuak aztertuko ditu; eta lekuz aldatzea proposatu ahal izango du, erabiltzailearen egoerari eta eboluzioari buruz duen informazioaren arabera.

Hemeretzigarrena. Gizarte Politikako Departamentuko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzutik etorritako kasuak.

1. Gizarte Politikako Departamentuko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuan artatutako adingabe batek 18 urte betetzen dituenean eta zerbitzu horren iritziz emantzipazio prozesua burutu behar duenean, bigarren mailako arretako gizarteratzeko sarean sar dezatela eskatu ahal izango dio zuzenean Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuari.

2. Proposamen horretan sartuta egongo dira eskatzailearen berariazko adostasuna eta deribazio horretarako bereziki prestatutako ereduaren arabera egindako gizarte txostena.

Hogeigarrena. Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko programetara bideratutako kasuak.

1. Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko programetara bideratutako kasuak direnean, eskaera izapidetzen duten udaleko gizarte zerbitzuek programa horretarako balorazio baremo espezifikoa bete beharko dute.

2. Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuak baloratuko du kasua, foru dekretu honen edukia kontuan izanda.

Hogeita batgarrena. Desintoxikazio prozesuko kasuak.

1. Desintoxikazio prozesua egiten ari diren pertsonak direnean, baliabidea eskuratzeko eskaera Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzura bidali ahal izango dute horretarako espresuki baimenduta dauden gizarte entitateek.

2. Edozein kasutan, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Nortasuna egiaztatzeko dokumentuaren fotokopia.

b) Errolda ziurtagiria edo errotuta dagoela frogatzeko agiriak.

c) Deribazioaren arrazoiak azaltzen dituen txostena.

d) Banako Arreta Plana.

Hogeita bigarrena. Oinarrizko gizarte zerbitzuetara heltzeko zailtasun objektiboak dituzten kasuak.

1. Eskatzaileak zailtasun objektiboak dituenean oinarrizko gizarte zerbitzuen onuradun izatera heltzeko, legezko egoerarengatik, erroldatuta ez dagoelako edo espetxean dagoelako, eskaera Gizarte Politikako Departamentuko Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzura bidali ahal izango dute horretarako espresuki gaituta dauden gizarte entitateek.

2. Gainerakoan, baliabideak eskuratzeko prozedura gainerako kasuetan bezalakoa izango da.

Hogeita hirugarrena. Presako prozedura.

1. Larritasun handiko ezusteko zirkunstantziak gertatzen direnean, Gizarte Politikako Departamentuak plaza huts bat esleitu ahal izango dio, aldez aurretik eskaerarik egin gabe, baldin eta ikusten bada pertsona hori gai dela foru dekretu honetan arautzen diren baliabideen multzoan artatua izateko.

2. Lehenago, pertsona hori urgentziaz artatzeko premia justifikatu beharko da, gizarte txosten baten bidez.

Hogeita laugarrena. Gizarte Politikako Departamentuaren balorazio baremoak.

1. Gizarte Politikako Departamentuak, foru dekretu hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epea igaro aurretik, baremo hauek onartuko ditu:

a) Bigarren mailako arretako gizarteratzeko bizitokietarako orientazio baremo forala, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren osagarria.

b) Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko programarako balorazio espezifikoko baremoa.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren balorazio baremoak onartzen diren arte, aplikagarri izango da 2013ko ekainaren 16ko 385/2013 Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna.

Hogeita bostgarrena.

Foru dekretu honek ondorioak izango ditu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

1. ERANSKINA

BALIABIDEEN TIPOLOGIA

1) Bizitokiak

Gizarteratzeko bizitokien sarea konplexua da, eta bi ardatz nagusiren inguruan artikulatzen da: a) pertsonaren desegituratzearen maila eta etiologia eta b) gizarteratzeko bidea egiteko borondatea edo borondaterik eza. Bi ardatz horiei ematen zaien erantzunak definituko du zentro mota egokia.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden baliabideak eta duten konplexutasuna kontuan izanda, horien tipologia zehatza 2. eranskinean ematen da.

2) Eguneko zerbitzuak edo zentroak

Bigarren mailako arretako eguneko zentroak hurbiltasuneko ekipamendu malgu eta balio anitzekoak dira, ordu banda zabalean irekita egoten direnak. Erabiltzeko ordutegia premien arabera aldatzen da. Horrelako zerbitzuen erabiltzaileak izan daitezke egoitza zentroetan daudenak, baina izan daitezke, halaber, beren etxean bizi direnak eta gizartearen konpainia behar dutenak eta hezkuntzako esku hartze jarraitua behar dutenak.

3) Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko programak

Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko bigarren mailako arretako zerbitzuaren xedea da, aztura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak baztertzea, eta egokiagoak diren beste batzuetara aldatzea, eta behar diren gaitasunak garatzea elkarbizitza egokiagoa izateko, eta/edo beren kargura dituzten pertsonak zaintzeko, gurasoen funtzioak, familiarekikoak eta elkarbizitzakoak hobeto bideratzeko aldatu beharreko alderdiak aldatuz.

4) Lagun egite espezializatuko programak (Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 22. artikuluko 2.7.3.1 apartatua)

Lagun egite espezializatua bigarren mailako arretako gizarte prestazio bat da. Programa horietan, erabiltzaileak profesional kualifikatu batekin parte hartzen du autonomiaz baliatzen eta gizarteratzen lagunduko dion laguntzako harreman batean. Lagun egite espezializatuak aukera ematen dio erabiltzaileari bere egoera kontrastatzeko, autonomia pertsonalari eta gizarteratzeari buruz dituen helburuak esplizitatzeko, eta prozesu guztian zehar erreferentziako pertsona bat izateko.

Programaren helburu nagusia artatutako pertsonen bizi baldintzak hobetzea da eta bizimodu autonomoa egiteko prestatzea, instituzionalizatu beharrik ez izateko, ahal dela. Lagun egite espezializatua bigarren mailako arretako programa malgu eta oso pertsonalizatua da, aurrerago, aldaketarako motibazioa eta arazoari buruzko kontzientzia landuago daudenean, zentroetan sartzeko aukera baztertzen ez duena.

2. ERANSKINA

BIZITOKIEN TIPOLOGIA ESPEZIFIKOA

1. **Sostengu intentsitate handiko bizitokiak.**

1.a) Exijentzia handiko egoitza zentroak. 24 orduko arreta ematen duten bizitokiak dira, desegituratze prozesu handia izan duten pertsonentzat eta Gizarteratzeko prozesua egiteko exijentzia handiko esku hartzea behar dutenentzat prestatuak.

1.b) Exijentzia ertaineko taldeko etxebizitzak (pisuak). 24 orduko arretako bizitokiak dira, emantzipazio prozesua burutu ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazteentzat, arrisku sozial handia dutelako lagun egite sozial bizia behar dutenentzat, prestatuak.

1. **Sostengu intentsitate ertaineko bizitokiak.**

2.a) Egoera kronifikatua duten pertsonentzako egoitza zentroak. Narriadura prozesu nabarmena duten pertsonentzako, iraupen luzeko zerbitzua (3-6 urte) behar dutenentzako, bizitokiak, Gizarteratzeko ikuspegia beste ikuspegi aringarriago batekin konbinatzen dutenak.

2.b) Egonaldi ertaineko egoitza zentroak edo pisuak. Desegituratze ertaina duten pertsonentzat, gizarteratzeko exijentzia ertaineko eta intentsitate ertaineko esku hartzea behar dutenentzat, jarritako bizitokiak dira (normalean 24 orduko arretako zentroak, baina baita pisuak ere).

2.c) Balorazio zentroa. Balorazio eta diagnostiko osoagoa behar duten pertsonentzako bizitokiak, egonaldian zehar etengabe behatuta egoteko aukera ematen dutenak. Balorazioa egiten den bitartean, gizarteratzeko prozesua egiten hasten da.

Sostengu intentsitate txikiko bizitokiak.

3.a) Gizarteratzeko taldeko etxebizitzak (pisuak). Gizarte bazterketa erdi mailakoa izan arren, gizartean oso gutxi errotuta daudelako eta, beraz, egoera larriagotzeko arrisku handia dutelako, intentsitate aldakorreko esku hartzea behar duten pertsona eta familientzako bizitokiak.

3.b) Lotura amaitzeko taldeko etxebizitzak (pisuak). Beste zentro batzuetatik pasatu diren baina gizarteratzeko prozesua osatzeko eta bizimodu normalizatuari ekiteko oraindik ere iraupen laburragoko edo luzeagoko lagun egite soziala behar duten pertsonentzako bizitokiak.